

BARRENDIK ETA ARRITURIK BEGITZEN DODAZ GIZONAK...

- * "Berrogei oiukatzen dautse, buruzkain dabiltzanai".
- * "Bere lan-sari apur ori luzatzen dabe, inori eskatu barik".
- * "Gerrikoa estutzen dabe, prakak ez beratutearren".
- * "Saboirik ez dautse emoten, eskuak garbitzen dabezanai".
- * "Budurik eginda dabiltz, zintzoaren burua ez onartzearren".
- * "Gogoan daukana zintzo esaten dabe, besteak zer esango ete daben gebitu barik".
- * "Geiago gura dabe sabel-zorria edozein-eratarira iruzurtu, euren buruak guzurraz bete baino".
- * "Aurpegia apurtu dautse, ain gogorra daukenai".
- * "Euren itxura jokutzen dabe, edozein itxura daukanari jokoa ez egitearren".
- * "Arau gabeko antzera, uztai bakarretik sartu nai ez dabelako".
- * "Ulea jausi egiten-jakie, miin puntan ulerik ez daukelako".
- * "Geiago gura dabe nork-bere zarpela ustu, iñoren lepotik aberastu baino".
- * "Aizea artzen bialtzen dabez, danen ontzitik zurgatzaille dabiltzanak".
- * "Jan barik egon gurago dabe, oinarriari uko egin baino".
- * "Zuri barik egonda be, illuntasunik ez dabe ikusten".


"Iñor ez danak"

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko EPAILLA'ren 5'an

IRARKOLA EUSKALERRIAN XVI GIZALDIAN

Gutenberg'ek, XV'gn. mendearen erdirantza, irarkola asmatuta laster, 1456'an argitara eban bere lenengo liburua, Biblia. Liburuak ataratzeko era ori, ederra zalako nonbait, beingoan zabaldu zan Europa'ko bazter guztietara. Baita Euskalerrira be. "Navarra oraindik bere erregetzaren jabe zan garaian ezagutu zan Iruñean Bricar'en imprimategia". 1489'an latinez atara eben idatzi bat; andik laster Logroño'ra aldatu zan eta gero, Cisneros Kardenalak deituta, Alkala de Henaresera joan zan, Biblia Poliglota irartzeko.

Migel Egia, legorretarrak diñoenez Brocar'ek, suiñak noski, ta Anvers flamendarrak inbat liburu atara zituen Lizarra'n, XVI'gn. gizaldi barruan ziurki; Anvers gero Iruña'ra aldatu ta an, 1561 an, Santxo Elso'ren Doctrina argitaratu eban, euskeraz eta erderaz. Auxe dogu Euskalerrian euskeraz atara zan lenengo liburua; Etxepare'rena, bada, 1545'an izan zan argitaratua.



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.